

INDIA: Herritar pobreenak
erabat itota dauzkate
beroaldiek eta lehorteen > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bakoitzari berea: historiari zentzua,
gertakariei kausa MIKEL ZUBIMENDI BERAŠTEGI > 9

2019ko uztailaren 6a | XIII. urtea • 627. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HERNANIN «IKUSIYAK»

1875-1975 BITARTEAN HERNANIN EGINDAKO ARGAZKIEK HARILKATZEN DUTEN HISTORIA
JASOTZEN DU IRAILERA ARTE ZABALIK IZANGO DEN ERAKUSKETAK. ARGAZKI ZAHARREK MANTSO
KONTATZEKO DUTEN GAITASUNA NABARI DA GELDIALDI BAKOITZEAN. IRUDIAN, HERNANIKO
TRANBIAREN AZKEN BIDAIA, 1958. URTEAN. > 10 Andoni ZINKUNEGI | ZINKUNEGI FAMILIAREN FUNTSA



Indian, beroaldiek eta lehortee
erabat itota dauzkate herritar
pobreenak 04

1875-1975 bitartean Hernanin
ikusiak jaso ditu argazki
erakusketa batek 10

In fraganti: Enrike Amilibia
aktorea 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 21



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria:** Entzierroaren atarian, ez irristatzeko estrategiak
- 08 **Ander Gortazar Balerdi:** Hiri eraztunak
- 09 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Bakoitzari berea: historiari zentzua, gertakariei kausa
- 14 **Alai Zubimendi**
- 15 **Maidier Iantzi Goienetxe:** Ikusezina ikusi
- 15 **Xabier Mikel Errekondo:** Groucho Marx vs Ada Hegerberg
- 16 **Gorka Zozaia:** Zientziak behar duen «tornua»
- 17 **Iker Barandiaran:** Korrontea bidelagun
- 22 **Garazi Goia:** Wimbledonen euskal jatorria



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Entzierroaren atarian, ez irristatzeko estrategiak

Zezenak lerratu ez daitezen pozima miresgarriarekin zipriztindu dituzte dagoeneko entzierroak zeharkatuko dituen karrikak. Bata bestearen atzetik, sanferminetara garamatzaten liturgiak bete dira eta, konturatu gabe, deklarazio bat gora, mehatxu bat behera, denboraren tunelean galtzeko ordua heldu da. Bederatzi egun, aktualitatearekin etenaldia egiteko Iruñean, eta beste bederatzi gehituta, Madrilen, (ez)inbestidura saioa.

Esfortzu handirik egin gabe, ondoko bederatzi egunez inork gutxi botako du faltan gobernua Nafarroan. Horretaz jakitun, agian, jai lasterketari ekin aurretik, Javier Esparzak bolbora bustiz beteriko suziriak bota zituen, non eta Madrilen, noiz eta Pedro Sanchez jarduneko espainiar presidenteak bere birbataiorako gonbidapena zabaldu zuen egun berean. Iruñean zezenaren orroa kasik entzun ahal zelarik, Madrilera, berriz ere, eskuin espainiarzalea espantuka.

Politikarien enegarren okurrentziak bost axola, badao besta kabalkada. Hori, bai, behin aldatzeko arropa zuria agortuta parrandak utzitako adarkadak sendatzeko eguna helduko denean... nolakoa izanen da nafar herritarren begien aurrean zabalduko den panorama? Apustuak zabalik.

Bestazaleek ongi dakitenez, sanferminetako jai ibilbidea abiatzen denean, helmugak baino gehiago bidaiak hartuko du protagonismo osoa. Nondik gatozen gutxi inporta eta nora goazen, auskalo. Norekin eta zertarako, hor datza koska. Hamaika zalantza behar dira uxatu, batzuk filosofikoak, besteak ez hainbeste, ospakizunen olatuari baldintza ahalik eta egokienetan aurre egiteko.

Etenaldi ofiziala Iruñean, baina nahitaez begi kolpe bat Madrilera bota beharko. Tik-tak, tik-tak, erlojua martxan jarri da, eta bi hilabete luzeko gibelaldiaz hitz egiteko eta, agian, akordioetara heltzeko epea finkatu da.

Nondik gatoz? Apirilaren 28ko bozketak utzitako emaitzetatik. Orduz geroztik, sanferminetako amaigabeko gauetan gertatzen den bezala, bai zenbakiek, bai hitzek bestelako itxura bat hartu dute. Eta herritarrek botoen bidez marraztu zuten bidea sasiz betetzen joan den heinean, galdera ikurrez beteriko gogoetak nagusitu dira.

Estafetan bezala, Madrilgo etorbideak ere irrist ez egiteko produktuaz blai. Sanchezen denbora kudeaketak mesfidantzaz zipriztindu du ezberdinen arteko adostasunak bilatzea xede duen jardun politiko-instituzionala.

Asteak joan, asteak etorri, kosta ahala kosta oinak lur gainean atxikitze edo, sinpleki, balizko aliatua barrengarri utziko duen txirristada noiz iritsiko den zain, Gobernu espainola osatzeko ardura duten aktore nagusiek ez dute ganora handirik erakutsi. Denbora irabazteko edo aukerak usteltzeko egin duten, dagoeneko norberak

Bi entzierro berdin ez daudenez, garai politikoak ez direla berdinak entzun dugu sarritan. Izan ere, aje zaharren eta azalkeria modernoaren arteko koktelak «Gaixoa ni» luze baterantz pusatu gaitu

bere iritzia izango du, baina errealitatea tematia da: iruindarrak besta zurrumbiloan sartu dira «nafar auzia», berriz ere, estatuko arbelari itsatsia delarik. Oraingoan hurbileko asmoak eta urrutiko beharrak noraino bateragarriak izanen diren jakin gabe jantziko dituzte iruin seme-alabek alpargatak. Edo beste era batera esanda, etorkizunik ez izanik ere oraindik aski presente dagoen iraganeko eskema –itxura aldatuta bada ere– berriro ez ote den gailenduko guztiz argitu gabe piztuko da besta.

Bi entzierro berdin ez daudenez, garaiak ezin dira alderatu. Horiek sarritan entzun baditugu ere, aje zaharren eta azalkeriaren arteko koktelak uztailetik harago luzatu dezake «Gaixoa ni». Baita buruko mina ere. •

INDIA

Herritar pobreenak erabat itota dauzkate beroaldiek eta lehorteek

INGURUMENA / joseangel.oria@gaur8.info

Krisi klimatikoaren adierazleetako bat dira beroaldiak, Indian batez ere apirilean eta maiatzean jasan behar izaten duten fenomeno, baina aurten ekainean ere sufritu dutena. Gero eta herritar gehiago hiri handietan bizitzeak, populazioaren zahartzeak eta klimaren egoerak arazoa larriagotu egingo dute.

Egin ditugun autopsiek erakutsi digute heriotza-ren arrazoia beroaldia izan dela kasu guztietan», esplikatu zuen orain aste batzuk Pratyaya Amrit-ek, AGND

hondamendiak kudeatzeko Indiako erakundeko eledunak, iparraldeko Bihar estatuan ekainean izan duten muturreko beroaldiaren inguruan. Klima-larrialdi arloko adituek diotenez, India da beroaldiek gehien kaltetuko duten

Ispilatzea New Delhi hiriburuko Indiako Atearen aurrean, bero handia egin zuen ekainaren 10ean. Prakash SINGH | AFP

herrialdea, bertan baitaude munduko hiri populatuenetako asko eta herritar gehienek ez baitute larrialdiari aurre egin ahal izateko nahikoa baliabide.

Aditu horiek egin dituzten kalkuluen arabera, beroaldiak jasan behar izaten dituzten hiri populatuena kopurua hiru-koiztu egingo da 2050. urterako: gaur egun mundu osoko 354 hirik izaten dituzte 35 gradutik gorako batez besteko tenperaturak udan, eta hemendik 31 urtera 970 izango dira.

Beste modu batera esanda, muturreko tenperaturak sufritu behar izaten dituzten hiri handietako herritarren kopuruak %800eko hazkundera izango du, 1.600 milioi pertsonara iristeraino.

BERO ZAKARRAREKIN LANEAN

«Bero zakarra egiten du, baina bizirik segitu nahi badugu lan egin behar», esan zion Efe agentziari Sushila kale-saltzaileak ekainaren 7an, termometroek 50 graduko markara iristeko oso gutxi falta zutela.

Eguzkia sutan zegoen egun hartan eta emakumea New Delhi Indiako hiriburuko erdigunean usoentzako janaria saltzeko ahaleginetan ari zen. Herritar batzuek erosi egiten diote bere produktua, ondoko biribilgunean dauden hegaztiak nola jaten duten ikusteko.

Trukean, saltzaileak errupia batzuk jasotzen ditu, ur fresko limoiduna erosteko adina. «Limoia duen ura edaten dugu, eta glukosa eta ur hotza ditugu. Horrela ateratzen gara bizirik», esan zuen aterki handi baten azpian zegoela.

Saltzaileak ordu asko egiten ditu kalean lanean, baina hi-





riburuko agintariek ez diote onartzen leku berean denbora asko egitea.

Beroaldiek herritar guztien bizimodua aldatzen dute, baina ez neurri berean. Ohituta dauden herrialdeetan neurri egokiak hartzen dituzte beroari aurre egiteko, agintariek zein herritarrek. Baina ohiturarik ez duten lekuetan oso tragikoak izan daitezke beroaldiak: 2003an Europako termometroak ikaragarri igo zirenean, 70.000 hildako izan ziren kontinentean. Espezialistek iragarri dute tankerako fenomenoak askoz ere larriagoak izango direla eta maiztasun handiagoarekin gertatuko direla 2040ko hamarkadatik aurrera. Eta horrek sekulako presioa eragingo die energia, garraio eta osasun sistemai.

Indiako kasuari dagokionez, etxe bat, itzala eta haizagai-luak lanean jartzeko elektrizitatea dutenek errazago pasatzen dituzte egunak baliabide horiek ez dituztenek baino.

Itzala dagoen edozein puntutan, metroaren sarreran esaterako, kartoi puska bat hartuta diru eske egoten dira herritar pobreenak. Iluntzen duenean ere egoera ez zaie hobetzen. «Gauean ere bero handiegia egiten du. Non egingo dugu lo?», galdetu du Ajay Singhek. Adituek diote beroari aurre egiteko garrantzitsuena ondo hidratatuta egotea dela, baina horretarako ere arazoak dituzte indiar askok.

NEKAZARIAK ERE LARRI

«Egoera honek mundu osoan du eragina, baina pobreenek gehiago sufritzen dute, ura ere falta zaielako», adierazi du Sunil Dahiya Indiako Greenpeace erakundeko ordezkariak. Eta pobreenen artean, nekazari askok dute egoerarik negargarriena: beste guztiek bezala beroa sufritzeaz gain, uholdeek eta muturreko beste fenomeno meteorologiko batzuek ere kalte handienak beraietara eragiten dizkiete.



Goiko irudian, txalupari bat ontzien artean erabat lehortutako aintzira batean, Nalsarovar erreserba naturalean, Indiako ipar-mendebaldeko Ahmedabad hiritik gertu. Hegaztiak ikusteko leku aproposa izaten da turistentzat. Sam PANTHAKY | AFP

Azpikoan, tximino bat Chennai hegoaldeko hirian, kanila batetik erortzen diren tantak edaten. Arun SANKAR | AFP

Beroaldiak jasaten dituzten hirien kopurua hirukoiztu egingo da: egun munduko 354 hirik izaten dituzte 35 gradutik gorako tenperaturak udan, eta hemendik 31 urtera 970 izango dira

Ohiturarik ez duten lekuetan oso tragikoak izan daitezke beroaldiak: 2003an Europako termometroak ikaragarri igo zirenean, 70.000 hildako izan ziren kontinentean

Zientzia eta Ingurumen Zentroak egindako ikerketa baten arabera, Indian ezagutzen eta sufritzen ari diren muturreko tenperaturen eragilea «klima aldaketa» da, hedabide batzuetan «krisi klimatiko» esaten dioguna, alegia. Iaz, Indiak dituen 29 estatuetatik 11k muturreko gertaera meteorologikoak izan zituzten: 1.425 hildako. Azken 17 urteotako batez bestekora (urtean 2.169 hildako) ez ziren iritsi.

Muturreko fenomeno batek eragiten duen hildako kopurua fenomenoaren beraren larritasunaren eta osasun sistemen egoeraren arabera izaten da. Adituek Indiak 2016an jasan zuen beroaldia gogorarazten dute, bertako erietxeek urte hartan aurrekoetan izan zuten paziente kopurua bikoiztu egin baitzuten.

GRADU ERDIA BESTERIK EZ

Zientzia eta Ingurumen Zentroak Munduko Bankuak emandako makina bat datu gogorarazi ditu: klima-larrialdiaren eraginez, 2050. urtean Indiako 600 milioi herritarrek nahikoa ur ez izatearen ondorioak jasan beharko dituzte. Zenbaki horiek ekonomiara pasatuta, Indiak bere barne produktu gordinaren %2,8 galduko du hemendik 31 urtera, adituak oso oker ez badabiltza bederen.

“Science Advances” aldizkariak 2017an argitara emandako ikerketa baten arabera, Asiako herrialde handian 1960az geroztik tenperatura 0,5 gradu baino ez da igo.

Hala ere, ehundik gora hildako eragiten dituzten beroaldiak izateko aukera ia hirukoiztu egin da azken hamarkadotan.

Adibidez, mendebaldean da goen Ahmedabad hirian bero-



«Egoera honek mundu osoan du eragina, baina pobreenek gehiago sufritzen dute, ura ere falta zaielako», adierazi du Sunil Dahiya Indiako Greenpeace erakundeko ordezkariak

«Science Advances» aldizkariak 2017an argitara emandako ikerketa baten arabera, Asiako herrialde handian 1960az geroztik tenperatura 0,5 gradu baino ez da igo

Goiko irudian, Bihar estatuko emakume bat ume txikiarekin erietxe batean, biak lo hartu berritan.
AFP

Beheko irudian, Assam estatuko Guwahati hiriko gazte bat pozik uretan jolasten.
Biju BORO | AFP

bolada batek 1.300 pertsonaren heriotza eragin zuen 2010ean; 2015ean arrazoi berarengatik 2.500 herritar hil ziren herrialde osoan.

Indian 1956az geroztik izan dituzten beroaldien sailkapen bat egina dute ingelesezko Wikipedia entziklopedian. Agian, koadroa ez da zientifikoki deitzen modukoa, baina esanguratsua dela ezin ukatu. Zazpi beroaldi ageri dira: lehenengo 1956koa, bigarrena eta hirugarrena 1990eko hamarkadakoak dira –1995 eta 1998–, beste bat 2000ko hamarkadako –2002–, eta azken hirurak hamarkada honetakoak –2015, 2016 eta 2019–. Hamarkadatik hamarkadara gero eta kasu gehiago izan dira beroaldien sailkapen horretan.

«Beroaldi batean hiltzea su txikian kozinatua izatea bezalakoa da –esplikatu zuen Camilo Mora Hawaiiiko ikerlari talde bateko eledunak orain urte batzuk–. Tortura hutsa da. Txikiak eta zaharrak dira ahulenak, zaurgarrienak, baina konturatu gara beroak edonor hil dezakeela, gazteak, soldaduak, atletak...»

AIRE GIROTUA KALEA BEROTZEN

Fenomenoa larriagoa da hirietan herri txikietan baino, asfaltoak, adreiluek, hormigoiak eta teilatu ilunek beroarekin esponja funtzioa egiten baitute egunez, eta gauean beroa igortzen dute. Etxean aire girotua duten herritarrak salbata daudela dirudi, baina gailu horiek eragiten dute kaleak are gehiago berotzea. Gainera, herritar askok aire girotua aldi berean jarrita edukiz gero, itzalaldiak izateko arriskua izugarri hazten da, kasu askotan gertatu izan den moduan, Kaliforniako San Bernardino konderrian 2018an, adibidez.

URA «URRE URDINA» BIHURTU ZAIE CHENNAI HIRIAN

Chennai hirian ura «urre urdina» bihurtu zaie eta likidoa lortu nahian putzuen inguruan elkartzen diren herritarren artean borrokak ere sortzen dira. Tamil Nadu Indiako hegoaldeko estatuko hiriburuak hamar milioi biztanle inguru ditu eta gehienak muturreko lehorre baten biktima dira. Plastikozko ontziak erabiltzen dituzte ura putzutik ateratzeko. Txirrika hotsak, zipriztinak, presa. Azken urte eta erdian ia ez du euririk egin eta badirudi lehorreak ez duela amaitzeko asmorik.

Tamil Nadu estatua aberatsa da herrialdeko beste batzuekin alderatuta, baina lehorreak eta beroaldiek erabat aldatzen dute egoera. Normalean, hiriak 830 milioi litro ur kontsumitzen ditu egunean, baina azken asteotan erabiltzeko moduko ura ez da kopuru horren %60a iristen. Deposituak agortuta daude eta geruza freatikoa bera ere behera doa.

«Gauetan ez dugu lo hartzea lortzen, putzuko ura agortuko zaigun beldurrez», azaldu dio France Presse agentziari Srinivasan V. 39 urteko elektrikariak. Egunsentian iritsi zen putzura, bere familiak har dezakeen ura hartzera. Kolore ezberdinetako plastikozko ontziak hogeita metroko sakonerara iristen dira nazioarteko aireportutik gertu dagoen putzuan.

Gauzak nola dauden ikusita, agintariak mugak ezarri eta kandaduak jarri zituzten putzuan eta bertatik ura ateratzeko baimena duten 70 familiek egunean 75 litro atera ditzakete: 25 litroko hiruna ontzi. Kopuru hori ez da nahikoa izaten eta herritar askok beste iturri batzuk lortzeko ahaleginak egiten dituzte, enpresa pribatuek eskaintzen duten ura erostea baztertu gabe. Ura ateratzen hasi baino lehen, zozketa egiten dute zein familiak hasi behar duen erabakitzeko: zorte ona dutenek, ur garbia eramango dute; azken familiek, marroi kolorekoa.

Srinivasan elektrikariak egunean bost ordu egiten ditu ura lortzeko ahaleginetan. Azken asteotan 25en bat euro gastatzen ditu ura erosteko edo zisterna-kamioi pribatuaren bisita

ordaintzeko. Sekulako dirutza da, hilean 190 euro kobratzen dituen pertsonarentzat. «Mailegu batzuk ordaindu behar ditut, baina epe horiei aurre egin ezinik nabil», azaldu du bere etxeko ekonomia erabat suntsituta ikusten duen langileak.

Hiri osoak egoera berrira egokitu beste erremediorik ez du izan. Jatetxeek bananondo hosto tradizionaletan eskaintzen dute janaria, ontziteria garbitzen urik ez gastatzeko. Herritar asko gauez jaikitzen dira kanila irekitzera, ontziak tantaz tanta bete daitezten. Egunsentian, ura ezer ordaindu gabe banatzen duten ur-ponpen inguruan elkartzen dira herritar pobreenak, etxera zerbait eramateko itxaropenarekin. Giroa bero-bero dago eta askotan sortzen dira liskarrak. Tamil Naduko beste hiri batean, familia batek ur gehiegi hartzen ari zirela salatu zuen ekintzaile bat hil zuen sekulako jipoia emanda.

Chennaik inguruetan dauden lau lakuetatik ateratzen du ura. Baina azken

bolada honetan aintzirak basamortu bihurtuta daude. Lakuetakoa arrainak ere usteltzen ari dira, ura falta zaielako. Prezipitazioak ez izateak larriagotu du aurtengo egoera, baina adituek diote krisia gaiztotu duela euria egiten duenean nahikoa ez jasotzeak. Izan ere, India gero eta urbanoagoa da eta ur beharrak ikaragarri egin du gora. Garai bateko erremedioek gaur egun ia ez dute ezer konpontzen.

Pradeep John blogariak sekulako arrakasta dauka Tamil Nadun bere eguraldi-iragarpenengatik. Bere ustez, «5.000-10.000 errupia (60-120 euro) zisterna pribatu bat ekartzeko ordaindu beharrean, herritarrek diru hori euria egiten duenean ura jasotzeko sistema bat abian jartzeko gastatu beharko lukete, eta orduan independente izango lirateke». Itxaropenez betetako mezu horrek iragarpen negargarrienei egin behar die aurre: meteorologoek arabera, urrian iritsiko omen diren montzoien zain egon beharko dute.

Herritarrek zisterna-kamioiak ekarritako ura etxera eramateko ahaleginean.
Noemi CASSANELLI | AFP





Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Hiri eraztunak

Auzoko kontsumo taldean eman dut izena. Kostatu zitzaidan erabakia hartzea, ez nai-
zelako sekula izan bereziki
barazkizalea -tentagarriegiak dira alternati-
bak supermerkatuan, azkenean azelgak, le-
kak eta azalorea aukeratzeko-. Akuilu bat
behar nuen nik, igerilekura salto egiteko duda-mudatan da-
goen haurrak bultzadatxoa behar duen modu berean, plas-
ta.

Baserria auzoaren goialdean dago, batek daki zergatik ur-
banizatu gabe gelditu den txoko batean. Maldan behera
trenbidea, alboan 90eko hamarkada hasieran eraikitako
auzoa eta, apur bat aurrerago, parke periurbano handi xa-
mar bat, merkataritza gune erraldoia, 2x2 errepidea eta in-
dustrialdea. O, Euzkadi. Hiria non amaitzen den zaila da
esaten.

Historikoki, «eraztun berdea» deitu izan zaie hiriguneen
inguruan sustatu diren eremu urbanizaezinei. Naturagune
babestuek eta parkeek osatzen dituzte normalean, eta hi-
rien kontentzio-lana egiten laguntzen dute. Gasteizkoa da,
seguruenik, gure artean ezagunena, 33 km luzeko arnasgu-
ne zirkularra. Mende laurdena bete berri du eta euria gogo-
tik egin du ordutik. Hasiera batean eraztun berdeen helbu-
ruak ziren hiriari muga jartzea, hiritarrei natura irisgarri
egitea eta bertako espezieen habitata bermatzea, baina
denborarekin laugarren bat ari dira etengabe azpimarra-
tzen adituak: elikadura burujabetza.

Energia burujabetzarekin obsesionatua bizi den herri ho-
netan apenas aipatzen da elikadura burujabetza. Labur, eli-
kadura sistema (ekoizpena, banaketa, kontsumoa) birtokira-
tzea helburu duen kontzeptua da, lurraldea ahalik eta
autosufizienteena izan dadin elikagaien ekoizpenari dago-
kionez. Energiarekin bezala, alegia, baina janariarekin. Eli-
kadura burujabetzak, gainera, beste hainbat arlotan luke
eragina: osasuna, lana, paisaia, kutsadura, harreman sozia-
lak, eta abar.

**Izenak ematen du izana eta «eraztun agroekologikoa»
esaten diote aditu batzuek (Mikel Valero, Iker Eizagirre
eta Carlos Renedori irakurri diet hitza "Aldiri" aldizkarian
idatzi duten artikuluan) eraztun berdearen eboluzio
honi.** Asmo bat, hainbat lubaki. Alde batetik, goitik behera-
koak, plangintza tresnak eta legedia moldaketak; bestetik,
behetik gorakoak, tokiko ekimenak eta norberaren ohitura
aldaketa. Azken honekin hasi naiz ni, kalekume honen igno-
rantziaren frogak utziz bidean. Otarraren bila joan nintzen
aurrekoan: tipulak, letxugak, ilarrak, lekak, dena ok, salbu
eta ezagutzen ez nituen zera batzuk, azelga modukoak bai-
na iletxoekin -zeharo desatseginak lehen begi kolpean, ai-
tortuko dut-. Whatsapp bidez idatzi nion Joxerrari, ea zer
zen hura; borrajak, antza. Harri batez bi kolpe: borraja, po-
rru eta patata krema egiten hasi naiz eta, hori gutxi ez, eta
orain badakit nondik datorren gaztelaniazko «quedarse en
agua de borrajas» esaera. Ezin gehiago eskatu. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ datorrena } Mikel Zubimendi Berastegi

Bakoitzari berea: historiari zentzua, gertakariei kausa

A tentzioz ikusi nuen Espainiako telebista publikoan Arnaldo Otegi egin zioten elkarrizketa. Harritu, ez ninduten larregi harritu eman zituzten irudiek, zuri-bel-tzean denak, berun eta bolborazkoak, kondenaren exigentziaren kondena horrena eta beste. Harritu, ez ninduten larregi harritu Otegiaren erantzun ederrek, zentzuzkoek, orekatuek eta etorkizunez kargaturikoek. Agian, zeozer faltan botatzekotan, zera, zen eguna izanda, hurrengo egu-nean Madrilgo Kongresuan zegoen ekitaldia egonda, Josu Muguruzarena ekar zitekeela gogora. Nik dakida-la behintzat, bera izan baita tiroz hildako jarduneko kongresukide bakarra. Tira, telebista aurrean emanda-ko minutu horiek burutazio batzuk papereratzeko au-ker a eman didate sikiera. Hemen paratuko ditudanak.

Espainian ez dute ulertzen, ulertu nahi, ez dute uler-garri egiteko pedagogiarik egiten. Esperientzia arma-tuaren akabera zaila izan zela, oso zaila, kontinuisimo zentzugabe baten logikan ez erortzearen eta funtsez-ko funtsaren funtsean amore ez ematearen arteko oreka bat bilatzea, nortasunarekin, historiarekin eta minkideekin negozioa egiteari irmoki uko egitea.

Eta kanpaina baten lokatzetan sartu ziren, sartuak dira, hankak nola atera jakin gabe. Horixe dela erraza-go a hanka sartzea ateratzea baino! Ezkerreko herri abertzalearen izena eta izana guztiz galaraztea zuten helburu, bere barrunbeak zulatzea. Oker, baina, oso oker dabilta. Tradizio eta memoria guztiak desegin eta pikutara bota nahiko lituzke kanpaina horrek. Eta batez ere, esperientzia armatuaren fundamentu guz-tien disoluziorik gabe, aldebakarreko eran bukatzeko baldintza egokiak sortzeko aukera guztiak zapuztea.

Altxamendu Espartakistaren ondoren, Rosa Luxem-burgek esan zuen iraultza dela gerra forma bakarra – izatez, bizitzeko modu berezia ere bada–, non azken garaipena porrot segida baten ondoren presta daite-keen soilik. Zenbat porrot geratzen dira oraindik, bai-na, garaipena ziurtatu arte? Eta nola identifikatu, nola bereizi, beharrezko porrotak erremediorik gabekoak direnetatik? Dena dardarka dagoenean ez da erraza, ez, galdera hauei erantzutea. Eta hori, hemen, bere or-

topedia eta inperfekzio guztiekin egin zela, egiten as-matu zela, ez dute ulertzen.

Garaile eta garaituen merkatu bat sortu nahi izan zuten. Partida «dena ala ezer ez» batekin bukatzea. Arrazoi guztien jabe edo arrazoirik gabe. Nolabait, «beti», «sekula», «dena», «ezer ez» horiek zoritxarre-ko ikur bat balira bezala gure kontzientzian tatuatzea, gu kondenatzea erabateko pasioen gehiegikerietatik kanpo nola mugitu asmatu ezinik betiko geratze ho-rretara.

DENA ALDATU ZUTEN GERTAERAK, JAUIZIAK

Hainbeste euskal herritarrek nondik atera dute inda-rra beren bizitza gaztea jokoan jartzeko eta, sarritan, galtzeko? Zergatik ez zuten enfrontamendu zuzena, odoltsua, ez beste biderik ikusi, beren urte gazteen sa-krifizioari nolabait axolagabe? Eta ez, ez, hemen, herri borroken, esperientzia armatuaren, erradikalizazioa ez zen etorri sukarra bezala, ez zen pixkanakakoa eta mailakatua izan. Ez zen «biolento» ziren belaunaldie-tan txertatutako faktore genetikorik izan. Dena aldatu zuten gertaerak, jauziak, izan ziren hemen, arre edo so esatera bultzatu zutenak.

Jakina galdu daitekeela, hautsa janez eta kateak lo-tuta bukatu. Onargarria deritzot hipotesi horri. Ezin onartuzkoa dena, baina, historiari zentzua eta gerta-kariei kausak kentzea da. Esperientzia armatuaren analisi kritikoa ezin daitekeelako psikologia krimi-nal, ikerketa konspiratzaile, intimismo mediatiko edo kausekiko deskonexio batetik egin. Ez. Laizis-moa behar-beharrezkoa da, gogoeta kritiko baten laizismoa, eta, debekatua nahi duten arren, historia baten handitasuna jakina aldarrikatu behar dela, ikonografia santutzaile edo aurreiritzietan oinarri-tutako deabruzetik askatutako bere protagonisten handitasuna, gertakariak beren inteligentziara buel-ta daitezen.

Horrek lagun gaitzake ulertzen. Baita espainiarrak ulertzen ere. Ongiaren eta gaizkiaren arteko moralis-mo zalantzarik gabek, mendeku infinituaren egarri aseegin batek, kritika historikoaren ariketa ezinezko egin baino lehen. •

HERNANIN «IKUSIYAK» 1875-1975 BITARTEAN, ETA ARGAZKITAN JASOAK

Amagoia Mujika Telleria

Ehun urteko tartean Hernanin egindako argazkiekin jositako erakusketak gauza asko kontatzen ditu; herriko parajeak eta kaleak nolakoak ziren, herritarrak nolakoak ziren eta zer egiten zuten paraje eta kale horietan. Argazki zaharrek berezkoa duten mantso kontatzeko gaitasuna nabari da geldialdi bakoitzean.

Hernanin ikusiak eta argazkitan jasoak, herria eta herritarrak nolakoak izan diren irudikatzen. Ekainaren 22az geroztik zabalik da Juantxo Egañak zuzendutako erakusketa eta ikusteko aukera izango da datorren irailaren 11 bitartean.

1875. urtean abiatzen da erakusketa, ezagutzen den Hernaniko lehenengo irudietako batekin, bigarren Karlistadan jaso. 1875eko irailaren 17an egindako argazkian udaletxea txikituta agertzen da, bezperan izandako bonbardaketaren ondorioz bertan zegoen bolborategiak eztanda egin zuelako. Hildako asko izan ziren. Argazkia Valentin Marin nafarrak eta Hermenegildo Otero donostiarrak atera zuten. «Donostian zeuden, eta Hernanin gertatu zena jakitean, zaldi gurdi bat alokatu eta argazkia ateratzera joan ziren. Oso konplikatu zen argazki bat egitea garai hartan. Bertan emultsionatu behar zen negatibo bat erabili beharra zegoen eta emultsioa ezin zen lehortu argazkia egin bitartean, ezta errebelatu aurretik ere. Lehortu aurretik egin behar zen hori guztia. Horregatik, laborategia gurdian bertan zeramaten. Teknikoki, ez zen batere erraza argazki bat egitea», agertu du Egañak, erakusketaren komisarioak. Udaletxea berreraikitzen aritu zireneko argazki bat ere badago erakusketan; areto nagusian lan horietan aritu ziren bi arkitektoak ageri dira: Joaquin Fernandez de Ayarragaray eta Ramon Cendoya.

Erakusketa urte bereko grabatu batekin abiatzen da, «The Graphic» aldizkarian argitaratua. «Grabatua argazkiaren aurrekoa da. Garaiko aldizkari ilustratuek argazkietan oinarritutako grabatuak argitaratzen zituzten, oraindik ez zegoelako argazkiak argitaratzeko modurik. Argazkiak plantxatan inprimatzeko prozesua asmatu gabe zegoen oraindik. Hartara, aldizkariarentzat lan egiten zuen grabatugile batek argazki baten gainean bere interpretazioa egiten zuen», segitu du azalpena.



Juantxo Egaña,
«Hernanin ikusiyak»
erakusketaren
komisarioa, Hernaniko
Kale Nagusian,
erakusketako pieza bana
eskuetan hartuta.
Jon URBE | FOKU

Paristik ekarritako irudiak ere badaude, Kulturako Ministerio frantsesean jasoak. «Bazen arkitekto frantses bat, Lucien, European barna bidaiari ibili zena. Bisitatzen zituen herrietako toki enblematikoen argazkiak ateratzen zituen eta Hernanin ere izan zen. Bere argazkiak ere ekarri ditugu».

Rogelio Gordon pintorearen argazki eder bat ere bada, 1890. urtekoa, Fagollagako zubian egin. Donostiako Arte eta Lanbide Eskolako zuzendaria eta Artista Euskaldunen Elkarteko eta Eusko Ikaskuntzako kidea zen Gordon. «Bere margoak egiteko argazkiak erabiltzen zituen, argazkietatik abiatzen zen. Horregatik bere artxiboan argazki mordoa ditu, tartean Hernanikoak. Margolari askok erabiltzen zituzten argazkiak beren lanen abiapuntu modura. Are gehiago, margolari asko argazkilaritzara pasatu ziren gero».

Leokako garbilekuko argazki zoragarri batekin jarraitzen du erakusketak.

1900. urtekoa da eta egilea ezezaguna da. Detaileetan erreparatuz gero, gauza mordoa kontatzen ditu argazki horrek. Emakumeak egurrezko ontziak buruaren gainean hartuta, etxerako ura eramateko. «Erakusketan, parajeak eta herria nola aldatu diren ikusteaz gain, kontakizun soziala ere badago. Ustedut oso ondo jasotzen dela ehun urte horietako Hernaniko historia. Kontatu gabe ere geratuko dira gauzak, baina beste asko kontatzen dira erakusketan. Gainera, garrantzi berezia eman diet oinarritzko iturriei. Originaletara jo dut ahal izan dudan guztietan». Hartara, Paristik, Madrildik edota Australiatik iritsitako piezak ikus daitezke.

Kulturako Ministerio espainoletik ekarritako argazki baten aurrean paratu da Egaña. «Aurelio de Colmenares konde aberats bat zen. Bidaia asko egiten zituen, han eta hemen argazkiak egiten, eta Hernanin ere egon zen. Iru-di estereoskopiko batean Hernaniko



merkatuaren irudi bikaina jaso zuen. Estereoskopia 3D-aren parekoa zen. Bi objektiborekin irudi bikoitzak egiten zituen; nolabait begi bakoitzak ikusten zuena jasotzen zuten, eta hiru dimentsiotara hurbiltzen ziren horrela». Colmenaresen funtsa Madrilén topatu du.

Hernaniko elizak presentzia handia dauka argazki historikoetan. «Eliza ikusi orduko, erraz identifikatzen da Hernaniko herria dela. Egia da garrantzia izan duela argazkietan».

Fundacion Popular de Estudios Vascos. Hortik ere jaso ditu argazkiak erakusketarako Egañak. «PP alderdiaren funtsa da eta argazki historiko mordoa daukate jaso bertan. Erakusketarako lau bat argazki utzi dizkigute».


Indalecio Ojanguren argazkilari eibartarraren argazkiak ere badaude. «Fototipia Thomas izeneko etxe baten enkarguz egin zituen Ojangurenek argazki horiek. Gero, argazki horietatik postalak egiten zituzten. Euskal Herri-

Goian, XX. mendearen lehen herena.
Hernaniko Portu auzoan hartutako irudia.



Indalecio OJANGUREN - Fototipia Thomas |
GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Lerro hauen eskuinetara, Hernaniko
tranbiaren azken bidaiaren aurretik,
1958. urtean, gidariak trago bat hartzen.

Andoni ZINKUNEGI | ZINKUNEGI FAMILIAREN
FUNTSA



«Erakusketan, parajeak eta herria nola aldatu diren ikusteaz gain, kontakizun soziala ere badago. Uste dut oso ondo jasotzen dela ehun urte horietako Hernaniko historia. Gauza asko kontatzen dira argazkietan»



Goian, ezkerretara, Ezkiaga pasealekua XX. mendearen lehen herenean.
Indalecio OJANGUREN - Fototipia Thomas | GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Goian, eskuinetara, 1960ko abenduaren 30ean uholdeak Karabel auzoan.
KUTXATEKA


Lerro hauen alboan, ezkerretara, 1949. urtean Hernanin izandako krosa.
Paco MARIN | MARIN FUNTSA | KUTXATEKA

ko herri askotako postalak egin zituzten eta normalean argazkilari sonatuei egiten zieten enkargua. Arretaz begiratuz gero, argazki batzuetan igartzen da zerua borratu egiten zutela, postalak garbiagoak izateko».

Argazki erakusketa bat prestatzen hastean, han eta hemen aritzen da komisarioa argazki bila. «Batzuetan, ezusteko ederrak topatzen dira. Aranzadi Zientzia Elkartean aipatu zidaten bazutela Hernaniko argazkiren bat, sendi batek emana. Eta horrelaxe topatu nuen Epeleko Etxeberri jate-txearen kanpoaldeko bazkariaren argazkia. Ez dira kalitate handiko irudiak, baina gauza asko kontatzen dituzte; Urumea, familia bazkari bat, jende aberatsa, jantziak, aisialdia...».

Donostiako Ricardo Martin eta Pascual Marinen argazkiak ere badaude. «Bi argazkilari horiek erreportaje sozialak egin zituzten. Hainbat aldirik eta egunkarientzat lan egiten zuten eta fotokazetaritzara gerturatzen ziren gehiago. Benetan argazki interesgarriak egin zituzten».

Garaiko Hernaniko argazkiek ez ezik, garaiko hernaniarrek ere badute tokia erakusketan. Eltzekondo borrokalari askotan izaten zen garaiko al-



dizkari grafikoetako protagonista, adibidez. Eta berdin Txirrita, Jose Ignacio Ansorena, Gabriel Celaya, Manuel Yaben edota Elias Querejeta. Horien berri ere badago. Adibidez, erakusketan bada argazki berezi bat, 1945. urtean Ziburun egin. Bertan agertzen da Florentino Goikoetxea, euskal mugalaria, belaua zaurituta. Argazkia Australiako hegazkinlari batek atera zion eta Australian War Memorialean topatu du Egañak. «Australian topatu genuen argazki hori. Comete sarearen hariari segika topatu nuen eta sekulako poza eman zidan. Egia da argazkia lortzeko prozesua luzea izan dela, baina lortu dugu. Horrelako aurkikuntzak sekulakoak dira», kontatu du Juanxo Egañak.

«Garrantzi handia dauka hor zehar barreiatuta dagoen material grafiko biltzeak. Erakunde publikoek ardura daukate eta ahalegin handiagoa egin beharko lukete norabide horretan. Beste estatu batzuetan, frantsesean kasu, askoz lan handiagoa egiten dute material grafiko berreskuratzen. Eta dirua inbertitzen dute horretan, jakitun direlako argazki horiek herriaren memoria direla. Hemen kultura hori ez dago hain errotua eta lan handia egin beharra dago».

MEMORIAREN GARRANTZIA

Garai bateko argazkiek eta egungoek ez dute antzik. Batetik, jendearen jarrera desberdina da. Lehen, gauza handia zen argazki bat egitea, solemnitatea eta denbora eskatzen zituen —esposizioak



Goiko irudia, ezkerretakoa, Santa Barbaran hartua 1952. urtean.
Indalecio OJANGUREN | GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Goian, eskuinetara, Plaza Berriaren ikuspegia XX. mendearen lehen herenean.
Indalecio OJANGUREN | GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Lerro hauen gainean, herriko plaza XX. mendearen lehen herenean.
Indalecio OJANGUREN | GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

luzeak ziren eta ohikoa da argazkietan jendea mugituta ateratzea—. «Negatiboak ere askoz handiagoak ziren lehen eta horregatik daukate hainbeste kalitate garai bateko argazkiek. Lan artistikoa, artisaua eta teknikoa zela esango nuke. Denbora eskatzen zuen, eskuz egiten zen eta teknikoki abilezia behar zen», azaldu du Egañak.

Komisarioaren ustez, une batetik aurrera argazkiak izatearen garrantziaz jabetzen hasten dira herritarrak. «Nik

uste dut konturatzen direla hildakoan, argazkiak baino ez direla geratzen; argazkiek memoria osatzen dutela. Hor-tik dator hildakoei argazkiak ateratzeko ohitura. Batzuen kasuan, bizitza osoan zuten argazki bakarra horixe zen, hil ondoren egindakoa. Haur txiki bat hiltzen zenean, etxe askotan ohitura zegoen haurra jantzi, aulki batean eseri eta argazki bat ateratzeko. Izan ere, argazki horixe izango zen betiko geratuko zitzaien oroitzapen bakarra».



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



Ikusezina ikusi

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Gorbata estutu, irribarre egin eta banoa kameren aurrera. Gipuzkoako zahar-etxeetan 400 plaza berri sortuko ditugula botako dut hitzaldian. Hori nabarmendu dezatela hedabideetan. Hauteskundeen emaitzek erakusten dutenez, gustura daude herri-tarrak gurekin. Hala jarrai dezatela.

– Egunean ordu eta erdi izaten dugu soilik egoiliar bakoitzari arreta zuzena emateko, eta ikaragarri gutxi da, hor sartzen direlako jaikitzea, garbitzea, otorduak... Ahatei bezala ematen diegu batzuetan jaten. 22 urte daramat zaintzaile lanetan eta denbora honetan ez

dakit zenbat greba egin ditugun; kontua galdu dut. Bitartean gauza ugari gertatu da nire bizitzan; umeak izan ditut eta beraiekin baino gehiago egoten naiz zaharrek. Herri kanpoan gaude, eta jendeak ez gaitu ikusten, etxekoren bat egoitzara etortzen ez bada behintzat.

– Lehen, lau lagun zeuden gurgildun aulkian; orain lau gara oinez ibil gaitezkeenak. Urteak dira hau nire etxe dudana. Geuk ere gero eta urte gehiago ditugu, eta arazo gehiago. Etxekoak ditut zaintzaileak eta larritzen naiz iritsi ezinda ikusten ditudanean. Horregatik, ahal dudanean laguntzen saiatzen naiz.

– Kazetaria naiz, baina ELAn ari naiz lanean, arlo soziosanitarioan. Izugarri

aberatsa izaten ari da pertsona hauek ezagutzea. Ekintza piloa egiten ari gara egoera sozializatzeko: ibilaldiak egin genituen joan den astean; astean kanpaldia, datorren astean ekintzak egingo ditugu eskualdeka... Askok kostatzen da jendearengana iristea. Ikusten dugu zenbat luzatzen ari diren grebak, bereziki sektore feminizatuetan, baina itxaropentsu gaude.

– Kazetaria naiz ni ere eta mesfidantzaz aditu ditut politikariaren hitzak. Inpotentzia, zaintzaile, egoiliar eta sindikalistarenak. Erabat bat egiten dut azken hiruren gonbidapenarekin: joan daitezela agintariak egoitza batera lanera, jaiegun batean bada hobeki. •

Groucho Marx vs Ada Hegerberg

**Xabier Mikel
Errekondo**

Guztiok dauzkagu printzipioak eta baloreak. Bakoitzak bereak, nahiz batzuenak “aldakorrak” diren... Agintariak eta diru-goseak kutsatuta daudenak dira Groucho Marxen printzipioaren jarraitzaile sutsuenak. Badira, baina, txapela kentzeko moduko salbuespenak, zorionez.

Urrezko Botaren jabe den Ada Hegerberg Norvegiako emakume futbolari erreferentzialenak uko egin dio Estatu frantsesean jokatzeko ari den Munduko Kopan bere selekzioarekin parte hartze-ari, gizon eta emakumeen arteko aukera desberdintasuna salatzeke. Aurrez, agin-

tariak eta federazioetako arduradunak mugiarazi zituen, baita hainbat hobe-kuntza ezarrarazi, baina guztiz eskasak izan dira Adarentzat.

AEBetako futbol selekzioeko kapitain Megan Rapinoek mundu guztiaren aurrean desberdintasuna, arrazismoa eta jazarpen poliziala salatzeke, himnoa abestu ez eta belauna lurrean paratu du eta, bide batez, elkartasuna adierazi Colin Kaepernick futbolari beltz ezagunari, zeinak balore berak publikoki defendatzen dituen 2016tik. Donald Trump matxista eta arrazistarentzat, bi grano ipurdian: emakumea eta beltza.

Nire kasuan, aspalditxo jada, balore politikoak sustatzeko aukera apartekoa

zela iritzita eta ukatzeak ekar lekitzidakeen arazo profesionalak ekiditearren espainiar selekziora joatea erabaki nuen; bestetik, elkarrizketak EAEn euskara hutsean eta Nafarroan ele bitan ematea. Zuzen egin nuelakoan nago.

Usteletik ere askotxo dute, ordea, selekzioek. Adibidez, hamar urtez errusiar selekzioan jokatuak egun batetik bestera Espainiakoan jokatzeko... kirol mertzenarioa eta agintari balore-ustelak.

Groucho Marxen printzipioa nagusi den garai ustel hauetan, beharrezkoak diren iraultza soziopolitikoak nekez lortuko dira eliteko kirolarien konpromisoarekin soilik. •



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Zientziak behar duen «tornua»

Txunditu naiz asteon, ohiko zientzia aktualitatea errebasatzean argiaren propietate berri bat aurkitu dutela irakurtzean. Beti iruditu zait interesgarria argia, hemen ere igarriko zitzaidanez, egungo teoria zientifikoen erdigunean den kontzeptua izateaz gain, hamaika jolas

ikusgarritarako bidea ematen duelako bere espektro ikusgaiko adierazpenak. Eta, zer arraio, karrerako azken bi urteak horretan murgilduta eman nituelako! Ezagutza zientifikoaren adibide paradigmaticoa ere badugu, betidanik uhin bezala deskribatu arren partikula gisa ere tratatzen baitugu XX. mende hasieratik. Are gehiago, argiaren izaera argitzea –erredundantziak balio beza– ikerketagai baita oraino.

Hain zuzen, Laura Rego fisikari gaztea buru duen Salamancako Unibertsitateko (Gaztela) lantalde batek, ezaguna zen argi-sortaren bihurtura-abiadura teorikoki moldagarria dela ondorioztatu ondoren, Colorado (AEB) eta Bartzelonako (Katalunia) laborategietan esperimentalki frogatu ahal izan dute propietate berri hau; “Science” aldizkariak joan den ekainaren 28an argitaratu eta bere azalera eraman zuen.


Gaian jantzia egon arren, apur bat kostatu zait aurkikuntza honen nondik norakoak ongi ulertzea. Ez nuen ezagutzen argiari momentu angeluar bi egozten zitzazkionik, bata, bere eremu elektromagnetikoaren polarizazioa barnebiltzen duena (SAM edo espinaren momentu angeluarra) eta bestea, bere uhin frontearen formari dagokiona (OAM edo orbitalaren momentu angeluarra). Hau da, argi-izpiak bere hedatze ardatzaren inguruan biratu egiten ditu elkarzutak di-

tuen eremu elektriko eta magnetikoa, eta bestetik, iturri beretik irtendako argi-izpi paraleloek osatzen duten uhin fronteak ere biratzen du desplazatzen den ardatzaren inguruan. Fenomeno hauek ezagunak baziren ere, biratze edo bihurtura hau estatikotzat jotzen zen, denboran aldaezina, eta ez zen, beraz, parametro kontrolagarri bat. Aurkikuntza honetan, baina, zera topatu dute: OAM motako bihurtura denboran aldagarria dela. Zehazki, ikerlariak denboran atzeraturiko eta momentu angeluar ezberdineko izpiak elkarrekintzan jarritz, harmoniko altuko muturreko izpi ultramore bat lortu dute, denboran aldagarria den momentu angeluar bat erakusten duena. Regoren esanetan, argia zurrumbilo moduan hedatzen da eta orain bere biratze abiadura kontrolatzeko atea zabaldu da.

Ingelesezt “self-torque” baitaiatu dute propietate hau, euskarara “auto-bihurdura” bezala ekar genezakeena.

Ezagutza berri honen aplikazio teknikoak esploratzeko dauden arren, hala-ko izpiek atomo eta nanoegiturak denbora ultra-arineko eskalan manipulatzeko aukera eman dezaketela uste da, nanomunduaren ikerketan askatasun maila bat irabaziz.

Ziur aski, aplikazio hauek garatzen diren heinean jasoko du errekonozimendua aurkikuntzak, baina dagoneko eman dio zientziari aurrera egin dezan behar duen «tornua». Ikusteko dago betiko sari banatzaile misoginoek nola aitortuko duten neska gazte baten lana, baina momentuz badi-rudi momentu angeluar biziz datozela auto-bihurdura azeleratuz datozen emakume zientzialariak... aurrera zurrumbiloa! •



Argiaren propietate berri bat aurkitu dute.

GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Korrontea bidelagun

A skotan ez gara errekan sartzen ausartzen korronteak nora eramango gaituen ez jakiteak beldurtzen gaituelako. Gauza guztiak kontrolpean eduki nahi izaten ditugu, gure existentzia osoa. Horren guztiaren hasiera eta bukaera nolakoa izango den irudikatu, diseinatu eta gauzatzeko behar itzela izaten dugu askotan. Eta hori berez ezinezkoa da, loteria hutsa da hori guztia betetzea. Hala jokatu-ta, gainera, ez gara beste aukeretara zabaltzen; itxita egoten gara erabat idatziz nahi izan dugun patu edo helmuga horretara, bestelakoentzat zirrikiturik utzi gabe, horrekin itsututa eta horri lotuta. Gainera, askotan –gehienetan– ez dira amestutako eta prefabrikatutako horiek egite bihurtzen, eta ondorioz frustratu egiten gara.

Aukeratutako bidean aurkitu ahal dugunari, bideari berari, ez diogu erreparatzen, ez dugu aintzat hartzen eta helmuga (balego) horri itsu so eginda, ez diogu gure buruari paisaiatz eta hark eskaintzen digun horrez guztiaz gozatzten uzten; ez diogu gure buruari eskema itxi horren kaiolatik irteten baimentzen. Eta hori, ezbairik gabe, akats handi bat da. Hain zuzen ere, horrela uzten dugu pasatzen bizitza, detaile txiki horiei erreparatu gabe jarduten dugulako eta, ondorioz, agian idilikoa den eskema hertsiz horri preso, bizi gabe uzten ditugu hainbat eta hainbat sentsazio, esperientzia eta pertsona.

Beranduegi izan aurretik komeni zaigu noizbehinka bidean geldiunea egin, atsedean hartzeko edo indarrak berreskuratzeko arrazoipean bada ere. Gelditu, ingurua behatu, sentsazioak aztertu eta hausnartu. Hori ezinbestekoa da. Geldiune hori baliatu dezakegu autoaren depositua betetzeko eta agian zure edo beste norbaiten deskuidupean baliteke erregeaiz erratu eta, tarte batean hor hain justu geldirik egon behar izatea edo zure iparrorratz neka ezin hori alboratu behar izatea. Hala, denbora batez

eskema horretatik irten eta hortik kanpo behatu ahal izango duzu; hor jasotzeko izan dezakezuna ikusteko, probatzeko eta deskubritzeko. Halako sorpresaz beteta dago bizitza! Askok eta asko pasatzen uzten ditugu etengabe, galtzen dugunaz edo irabazi dezakegunaz ezjakin eta axolagabe, ezjakintasuna axolagabea baita.

Oraindik ez gara, bada, zorionez gasolindegiz horretatik mugitu; eta egia esanda, asko da bertan gelditu eta gure kontrolpean zegoenetik edo hasierako asmoetatik urrundu izana. Pauso handia da, lehenengo pausoa beti da garrantzitsuena. Pauso hurrenkerak eramango gaitu eraman beharreko –auskalo, nora!– lekura, baina lehen pausoa da ezinbestekoa, hausnarketaren ondorioz jarrera aldatzea, erabakia irudikatu eta gorpuzten duena.

Irudikatu orain gasolindegiko kafetegian kafe deskafeinatua eskatu arren, benetako kafea zerbitzatu

Beranduegi izan aurretik komeni zaigu noizbehinka bidean geldiunea egitea, atsedean hartzeko edo indarrak berreskuratzeko bada ere. Gelditu, ingurua behatu, sentsazioak aztertu eta hausnartu

dizutela. Horrela izanda, beste abiadura bat hartuko du zure egunak eta baita baliteke gauak ere. Abiadura edo erritmoa tempoa mugitzea ere bada aldatetara irekitzeko beste ekintza bat.

Errekan sartzeko hautua egin duzu. Ura hotza dago, oso hotza, baina hankak eta gerrialdea barruan sartu ahala konturatu zara bizirik zaudela, aspaldi pentsatu duzun baino biziago. Etorri ahal denaren aurreko beldur eta ezinegona hotzean sartu eta sendatzen doa, baretzen. Bazoaz korrontearen barrena, adi bidetara eta aurki ditzakezun harri eta bestelakoei, baina eramate horri kontra egin gabe. Bazen ordua bizi-abentura berartzeko, burua irekitzeko! •



Enrike Amilibia, Erreenteriako aktorea, Donibane Lohizunen. Jokin ETCHEVERRIA

infraganti

ENRIKE AMILIBIA

Gertu izanagatik ezagutzen ez den edertasunaz mintzo da Enrike Amilibia Donibane Lohizunen, itsasoaren marrari so. Aniztasuna ere, gertu izanagatik, apenas ezagutzen den ondo, sakonean, zuentasunaren azala zartatu eta barrutik. Aktore errenteriarrek antzerkian bezala egunerokoan, norabide garbi bat du: ondo pasatzea eta ondo pasaraztea.

Badira errespetua sortzen duten elkarriketak, tarteka urduritasuna, eta apika beldurra, ez baita erraza harremanik ez duzun pertsonarekin lehen kontaktua egitea, mahai berean eseri eta parean jarrita itaunketa hastera, pausatutako galderaren batek ezi-

negona sortuko ote dion edo hitzen batekin saminik eragingo ote diozun hausnartuz. Denak ez gara berdinak, eta batzuetan, gehiago da parekoa nor den zer galdetu behar zaion baino.

Hala gertatu zaigu Enrike Amilibiarekin, eta erran gabe doa gure korapiloak berak askatu dituela naturaltasun osoz, “egun on” erran orduko;

«ez gara modu batekoak edo bestekoak, denoi falta zaigu zerbait, ez daukagu dena gure eskuetan, beraz ez da nik urritasun bat dudala edo zuk duzula, baizik eta desberdinak garela gu biok, eta aniztasunean dago aberastasuna, pertsonak aniztasunez beteta gaude, hori da egiazko bizitza».

Sententzia bikaina iruditu zaigu eta hortxe datza lerro hauen sarreran aitortutako errespetua, ezagutu aitzin eta ezagutu ondoren horixe baita Enrikek transmititu digun sentsazio nagusia. Xarmanki mintzo da, gozoan, eta aktorea izanik dotore gainditzen du aktuazioaren marra kalakan ari denean, gertutasuna helarazi eta emotibitate handiz agertzen baititu hausnarketak.

Ez omen zen aurretik nehoiz etorri Lapurdiko kostara, eta Jokin Etcheverria “Puntu Koma” webserieko ekoizle eragileetako bat lohizundarra denez, hari egindako bisita profitatu dugu guk ere Enrike ezagutzeko.

GERTU IZANAGATIK, EZEZAGUN

«Enrike Amilibia Manaut naiz», erran digu serio begietara beha, «Down sindromea daukat eta ez dut ezkututzen. Ez da gaixotasun bat, eta harro esaten dizut hori, edonoren aurrean aitortzen dut, ez baitut ikusten gauza txar gisa edo gutxiago banintz bezala. Mexiko Hirian sortu nintzen; bueno, ama han zegoenez kasualitatez sortu nintzen Mexikon orain dela 32 urte, baina txikitatik Erreenterian bizi naiz. Pozik». Eta azken hitzak, Enrikeren «pozik» horrek, urratu du seriotasuna, zorrotasuna ekarri digu belarrietara eta alaitasunari leiho bat zabaldu dio bere irriñoak, Donibane Lohizuneko itsasada-

retik itsaso zabaleraino doana.

«Ez dago oso urrun nire bizitokia; kilometro gutxi dade Donibane Lohizunetik Erreenteriara, eta harrigarria da hau zein ederra den eta, gertu izanagatik ere ez nuen ezagutzen. Halaxe gertatzen zaigu denoi bizitzarekin, eguneroko gauzekin»; horra bigarren esaldi indartsu bat oparigisa. «Niri betidanik gustatu zait antzerkia, txikitatik eduki dut buruan, interpretatzea maite nuen eta horrela sartu nintzen mundu horretan. Nire lehen esperientzia Irungo Legaleon-T taldearekin izan zen eta ondoren ‘Martin’ tele-sailean hartu nuen parte, Euskal Telebistan ematen zuten kapituluka eta oso ondo pasa nuen han, gustura sentitu nintzen». Gustura pasatzea da justuki Enrikek bere konpainia eskainiz lortzen duen zerbait, halaxe iruditu zaigu orobat. «Geroago ‘Marioren bakarriketa’ egin nuen; hori Youtuben ikus daiteke. Mario da pertsona bat katxondeoa maite duena, umoretsua, eta irri eginaz ondo pasatu nahi duena. Bueno, gonbita luzatzen dizuet eta bakarriketa ikusi nahi duenak erraz ulertuko du nolakoa den Mario, bakarrik bere maitea falta du...»; ahapeka aipatu digu hau eta, maitasuna aipatu duenez, pentsamendua sakontzeko eskatu diogu. «Bikoterik gabe ere maitasuna izan dezakezu, zeure burua maite baituzu aurrena, eta ez da bilatu behar bikoterik, etorriko da nahi badu. Nik, halere, maitasunaz baino nahiago dut enpatiar buruz hitz egin: XXI. mendean oso berekoiak garela pentsatzen dut, horrela ikusten dut gizartea, ez dugu besteengan pentsatzen eta gu-

re buruari begiratzeko diogu gehiegi. Bestalde, desberdintasunak politak dira, baina itxuran jartzen dugu arreta denok, kanpokoan, itxura fisikoa bakarrik balio du hemen, bihotzak ez du balio ezertarako».

ANIZTASUNARI BURUZ HITZ EGIN

Horra ba, Enrike libre ageri da eta aipamen bakoitza mailuak jotako iltzea bailitzan nabaritzen dugu. «Enpatiarena nahi ta aipatu dizut. Lagun asko ditut homosexualak eta badakit epaitu egiten dituztela; hau da, ezagutu aurretik epaitu egiten da eta aniztasunarekin berdintzen da. Alex Tello ezagutu nuen eta berak aukera eman zidan aniztasunaren inguruan lan egiteko; obra bat sortu genuen 'Jendar-tean bidaide'. Irunen, Orion eta Usurbilen aurkeztu genuen eta oso ongi joan zen, dezente jorratu genuen gai hori eta nik uste dut beharrezkoa dela aniztasunari buruz hitz egitea eta mezua zabaltzea».

Natura, itsasoa, eta mendia maite dituela iradoki digu Enrikek inguruneari erreparatuz, eta aitortutako pasio horien erdian musika ere badago. «Musika ere asko maite dut, poztasuna ekartzen dit, eta batez ere euskal musika entzuten dut, baina baita latinoak ere. Beharbada, Mexikon sortzeak hurbildu nau mundu horretara, baina belarrietan goxoki sartzen zait dantzagarria den musika. Ainhoa Arteta ezagutzeko aukera izan nuen bestalde, eta asko miresten dut bera; orduan, musika klasikoa ere gustatzen zait, eta ez dut ahortzi nahi zer lan egin duen Ainhoak, nazioartean ezaguna izatea lortu baitu eta



Betidanik gustatu zaio antzerkia Amilibiari eta telebistan zein antzerkian hainbat lan egin ditu. Azkena «Puntu Koma» web-telesaila. Jokin ETCHEVERRIA

hori dena lana gogor egingo da».

Bere aisialdiko gauza guztiak aipatu dizkigula zirudien, baina azken momentuan beste hau gogora ekarri digu: «Ping-pong jokoa maite dut bereziki, mahai-tenisa, asko gustatzen zait eta psikomotrizitatearekin lagundu dit, bista hobetzen, kontzentrazioa... eta badakit hortik esaten dutela Espainiako txapelduna naizela mahai-tenisean, baina ez da egia». Irrikarkailaz segitu duenez, «umorea kutsakorra da, nik badakit irri eginda zuri ere irri eginaraziko dizudala eta hori da nire filosofia bizitzan, positiboa izan eta baikorra beti. Azkenean antzerkia bezala baita bizitzako egun bat,

eta nik ongi pasatuko dut zuri ondo pasarazten badizut».

Ondo pasatzearena ondo ikasitako zerbait gisa daukala iradoki diogu, ikasgai bihurtu behar litzatekeela eskolan, eta berera eraman du gaia. «Esaten dute antzerkia egiteko titulu bat behar dela eta asko ikasi behar dela. Aurrena for-

makuntza bat dago eta gero gidoiak buruz ikasi behar dira. Alde batetik, ulertzen dut hori guztia, baina uste dut barnean eduki behar duzula antzerkia, bizimodu bat baita, sentitzen duzuna. Film labur bat egin nuen, 'Aquí es posible'; urritasun bat duten pertsonekin lotua zen; Anjel Alkain eta Bar-

«Down sindromea daukat eta ez dut ezkutatzen, ez da gaixotasun bat, eta harro esaten dizut hori, edonoren aurrean aitortzen dut, ez baitut ikusten gauza txar gisa»

«Umorea kutsakorra da, nik badakit irri eginda zuri ere irri eginaraziko dizudala eta hori da nire filosofia bizitzan, positiboa izan eta baikorra beti»

bara Goenagarekin egin nuen lan hori, eta gidoia ikasi nuen eta naturaltasun osoz antzeztu. Zerbait ahanzten bazitzaidan aurrera ateratzen ikasi nuen, beste bide batzuetatik jotzen». Kosta ahala kosta bizitzan aurrera egiten ikasi duenaren ahapaldiak jarraipena izan du. «Mundua ez dago Pocahontas moduko jendez egina; ze filma ikusten dugu eta badirudi emakume perfektua hori bakarrik dela eta hemen ez dago perfekturik, baina aldi berean denak gara hala. Galdera bat egin nahi nuke: zergatik ez dugu ikusten Down sindromea duen Pocahontas bat? Zergatik ez dizkigute normaltasunez agertzen telebistan eta zinemaren gizartetik urrunduta edo ezkutatuta dauden desberdintasunak, aniztasun horiek guztiak?».

«EZ GINTUZTEN IKUSTEN»

Enrikek argi utzi digu transzendentziaren bideak maite dituela, filosofiarenak, eta elkarraldia plazerez luzatuz hitz potoloei buruz solastatu zaiagu; urritasunak, normaltasunak, desgaitasunak... hedabideetan edo karrikan nahinoiz entzuten direnak. Horien inguruko bere posizioari tinko eusten dio berak; «aniztasuna» aipatzen du etengabe. «Lehen, ni bezalako pertsonak, esan nahi dut desberdintasun bat dugunak, desgaitasun bat... ez ginen kalean ibiltzen, ez gintuzten ikusten, ezkutuan egoten ginen behar-bada. Eta aniztasuna polita da; nik hori soilik ikusten dut bazter guztietan, aniztasun intelektuala, aniztasun fisikoa, emozionala, psikomotrizitatekoa... ez dago besterik. Gainera, askok epaitu egiten gaituzte ezagutu aurretik eta



pentsamendu horrekin bukatu behar da, ezabatu, zakarretara bota».

Esanda bezala, “Puntu Koma” websailean aritu da lanean, berriki ikusgai izan dena EITBn, eta Nahieran ikus daitekeena oraindik goiti. «Amaia Rojok eta Maialen Sorzabalberrek sortutako telesail digitala da ‘Puntu Koma’, eta lantaldean ia denak emakumeak dira, eta ni horrekin asko poztu naiz, ze urritasuna dugun pertsonekin ahalegin berezia egiten den bezala, hein berean egin behar da berdintasunarekin ere. Uste dut gizonentzat errazagoa dela antzerki eta halakoetan ardurak izatea, agian oker nago, baina inpresio hori

daukat». Next Station ikus-entzunezko plataformaren euskarazko web-telesail lehiaketa irabazi zuten bi zuzendariak; 10 minutu inguruko sei atalez osatua dago eta telesailak sari anitz eta errekonozimendua lortu ditu. Ospitale batean pasatzen da websailaren istorioa eta Enrike Amilibia aktoreetako bat da; Iñake Irastorza, Sara Cozar, Fariba Sheikan, Mikel Ibarguren, Iñigo Gastesi eta Iñaki Beraetxerekin batera.


Etorkizunean zer egin nahi duen galdetu diogu azkenik. «Ezer berezirik ez, bizi, irri egin eta irri eginarazi. Noski, nahi nuke film batean parte hartu edota antzerkiarekin lotutako edozertan; aukera

ematen badidate, telebistan edo edozein obratan gustura egingo nuke eta jende interesgarria ezagutu, asko baitira lan honetan ezagutu ditudanak. Elkarren artean gauzak egitea inportantea da gainera, elkarri laguntzea, eta berdindu zertan den hori, zer lan edo zer arduratan, egiten duzun guztia egin behar da bokazioarekin eta errespetua eta empatia behar da besteenganako, horrekin bakarrik lortuko dugu gizarte hobe bat».

Enrike bezalako gehiagorekin argi dago hala izango litzatekeela. •

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



RICARDO MARTIN. FOTOCAR FUNTSA. KUTXATEKA

GARBITZAILEAK, DONOSTIAKO LOIOLA AUZOAN, 1913. URTE INGURUAN

Lerro hauen gaineko argazkian igar daitekeenez, garbitzaileen lana oso gogorra zen. Maiz, muturreko tenperaturarekin, kasik belaunetaino sartzen ziren errekan aberatsen, hoteletako bezeroen eta «belle époque»-ko garai hartan uda Donostian gozatzen zuten dirudunen arropa garbitzeko. Gainera, kontuan izan behar da garai hartan Loiola auzoko urek ez zituztela higiegi baldintzak betetzen eta auzoko ur zikinak ere bertara joaten zirela. Garbitzaileek behin eta berri aldarrikatu zuten espresuki beren lana egiteko eraikuntza bat, baina 1928. urtera arte ez zuen inauguratu Donostiako Udalak Loiola auzoko garbitokia.

Ricardo Martinek egindako argazkia 1913. urte ingurukoa da, Donostian, Urumearen erriberan, Loiola auzoan egin. Irudiaren egileak modu apartan jaso zuen bere kamerarekin garaiko Donostiako testigantza; bizitza soziala, hiriaren eraldaketa eta eraikuntza berriak.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Wimbledonen euskal jatorria



Coco Gauff, 15 urteko estatubatuarra, aurten Wimbledon. Adrian DENNIS | AFP

Little people, big dreams» -«Pertsona txikiak, amets handiak»- liburu bildumak haurrentzat diseinatutako biografia ilustratuak biltzen ditu.

Historian zehar izandako emakume adierazgarrien bizitza kontatuz, haurrek txikitatik berdintasunaren garrantzia eta emakumezkoen erreferentziak presente izatea da helburua; Hala, ametsak betetzen saiatzearen kontzeptua oso modu sotil eta inteligentean barneratzen dute.

Billie Jean King tenis jokalaria ohi eta, besteak beste, genero berdintasunaren aldeko aktibistaren liburuari buruzko promozioa jaso dut; hemen-dik urtebetera argitaratuko dutela diote. Aurretik erosi ditudan liburuengatik eta azken egunetan Wimbledon tenis torneoari buruz ikusitako edukiengatik, Amazonek

“bazekien” interesatuko zitzaidala. Eta, noski, berriro ere amuari hozka egin, eta eskaera egin dut.

Googlen «Wimbledon» eta «*basque*» sartuz gero, tenisarekin loturiko hiru gauza azaltzen dira. Garbiñe Murguruza tenis jokalaria ezagunaren aita euskalduna zela, batetik. Bigarrenik, Jean Laurent Robert Borotrak Wimbledon lortutako garaipenak. Biarritzen jaio zen Borotra eta “Bounding basque” edo “euskaldun saltaria” ezizenez zen ezaguna.

Eta, hirugarren kontua, eta bide batez gehien harritu nauena: jakin berri dut belarretan jokatzen den tenisak euskal pilotarekin lotura duela. Izan ere, Juan Bautista Augurio merkataria zor dio neurri batean Wimbledonek bere existentzia. Augurio Espainian jaio zen (ez dut aurkitu zehazki zein lekutan), baina haurra zela joan zen Erresuma Batura bizitzera. Gazte-

tan hasi omen zen merkataria lanean, Espainiatik hainbat produktu inportatuz. Eta horien artean euskal pilotaren ezagutza zabaldu zuen. Thomas Henry Green-ek eta berak, belarretan tenis jokoa probatzen hasi zirenean, “belarretako pilota” deitu zioten lehenengoz jokoari, orduan Euskal Herrian ezaguna zen pilota erreferentziatzat hartuta.

Urte gehien dituen tenis torneoak da Wimbledongoa; 1877an izan zen lehen ekitaldia. Emakumezkoek zazpi urte beranduago, 1884, urtean, hartu zuten parte. Billie Jean Kingek irabazi zuen lehenengo tituluagatik 750 libera jaso zituen; urte berean, gizonezko irabazleak, 2.000 libera. Zorionez, 123 urtetako desberdinkeria amaiera eman zitzaion eta 2007. urteaz geroztik emakumezkoek eta gizonezkoek diru-sari bera jasotzen dute.

Zorionekoa naiz, aurten bertan izateko aukera baitut. Jaso dudana gonbidapeneko argibideek diotenez, ezin da apurtutako galtza bakeroekin, hondartzako sandaliek edota txapin informalekin joan. Bazkariko menua begiratu dudanean, postrean marrubiak daudela ikusi dut. Noski. Torneoak irauten duen bi asteetan zehar, 28.000 kilo marrubi eta 10.000 litro esne-gain kontsumitzen dira. Agidanez, 1877. urtetik eusten diote ohitura horri. Londres hegoaldeko eskualde batean dagoen landetxe bakar batetik ekartzen dituzte goizero marrubiak; goizero bildu berri dauden 100.000 marrubi ekartzen dituzte.

15 urteko Coco Gauff estatubatuarra da aurtengo ezustekoa. Ametsak aipatu ditut. Emakumezkoak. Erreferentziak. Gauffek baldintza horiek guztiak betetzeko aukera asko dituelakoan nago. •

7^h haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



Habana ezezaguna Saltsa anitzeko txokoak

Hainbestetan jasoa argazkietan, hainbestetan kontatua, Kubako hiriburuak beti du zerbait berria eskaintzeko. 500 urte betetzear dagoenean, bere txoko jator eta ezezagunen bila ibili gara.

Eta gainera: Maharajaren pare Bikaner hirian • Etiopiako Omo harana, iraganaren itzulera • Azken kataroaren urratsak Lleidan • Seuleko taupadak neurtzen

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^h haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

Parte hartu...

...eta irabazi sari zoragarri hauek!



1

EROSKI viajes

MADEIRARA BIDAIA.

Astebete (2 pertsona).

Bidaia data: Abuztuaren 27tik irailaren 2ra.

Joan-etorriak aireportua-hotela-aireportua.

Egonaldia 4* dituen hotelean.

Bilbo irteera (abuztuaren 27an).

Bidaia-asegurua eta aireportuko tasak barne.



4-5

7 gau.

2 heldu + adingabe 1 (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.



EROSKI viajes

2

7 gau.

6 heldu + 3 adingabe (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.

3

7 gau.

4 heldu + 2 adingabe (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.

DOAN

PARTE HARTZAILE

BAKOITZAK

GEHIENEZ 3 TALDE

AUKERATU AHAL

IZANGO DITU.



PUNTU ESTREN ZOZKETA.

3 ekintza-kamera
Ricoh WG-M1.

SAMAR
FOTO + VIDEO + IMAGEN DIGITAL



ZOZKETA PARTE-HARTZAILE HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Specialized MYKA 650B bizikleta 1 + Specialized kaskoa.

egonaldi Costa Dauradan

(2 heldu + adingabe 1).

50 NAIKZ camiseta.



maestre



PARTE HARTU

NAIZeko
helbide honetan:

tourjokoa.naiz.eus

naiz:

Bidal iezaguzu
zure proposamena

Ekainaren

27 tik

tourjokoa.naiz.eus
web orriaren bitartez

eta JOKATU!



► OHARRA

- Bidaletan edo egonaldietan, sariaz gozatzeko aukerarik ez izanez gero, laga daiteke, baina ezin dira datak aldatu.
- Lehen 5 sariak zerga-atxikipena izango dute. Ogasunerari indarreko araudia betez.

